



Otsaila aldean aurreratu genizuen moduan, hurrengo igandean (ekainak 1) Barakaldoko kaleetan ospatuko da Euskal Eskola Publikoen urteroko jaialdia, "Ekiozu Euskal Eskola Publikoari" lelopean.

Jaialdia [EHIGE](#) koordinadorak (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarte) antolatzen du eta bertako bozeramaleek adierazi dutenez, aurtengo jaialdia Barakaldo bezalako herri batean antolatzea erabaki dute, bertako ikasleriaren erdia hartzen duten 17 ikastetxe publiko daudelako bertan.

Igandeko ospakizun honetarako makina bat ekimenez beteriko egitaraua prestatu dute. Bertan Barakaldoko zenbait eragile kultural dinamizatutako jarduerak azpimarratu daitezke: Hala Dziporen txalaparta tailerra, Laguntasunaren dantza emanaldia, Herriko taldeen kontzertuak, Ainara elkartearen tailerrak,...etab. Egitarau osoa [hemen klikatuz](#) eskuratuko duzu.

EKimen guztiak Barakaldon zehar banatutako 4 gune desberdinetan burutuko dira: Herriko plaza, San Bizenteko parkean, Anaien parkean eta Foru pasealekuan hain zuzen ere. Hortaz gain, Larrazabal basoan, lorategi botanikoan eta itsasadarrean zehar burutuko diren txango gidatuetan parte hartzeko aukera egongo da.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, igandeko jaialdia eskola komunitatea osatzen duten eragile desberdinek jai giroan elkar jarduteko aukera paregabea izango da.